

## TRIBUNA LIBRE

UZEI informa y responde (eta V.)

## U.Z.E.I., ALA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA DA ARAZOA?

1977ko udaberrian UZEIren egitasmoari bere azalpen idatzita eman zitazionetik proiektu horre ahalbide ekonomikoak lantzeari ekin genion. Egiteko hau beti zaila izanik ere, risiagatik, ez zen huraxe laguntza-eske ibiltzeko egokierari erasoa. Eta handi hona ere handia izan da risiaren larria.

UZEI kultur Elkargoa da eta, bere arautegiaren arabera eta urte-oroko ihardunaldiak erakusten dutenez, diru-eteinik gabeko Elkargoa da. Ez dezake irabaziri baina, eta defizit batekin bukatu du bere ihardunaldi bakoitza. Euskararen aldeko bere lana, etengabe eskean ibiliz atera ahal izan ditu UZEIk.

## Irabazirik gabeko lana

Lan hauek, haren oinarritzota-sunagatik (ikerketak aplikatu baten maila dute gehienetan), ezin dute oraingo beren burua ordaindu, subentzio bidez bakarrik da egin-garria UZEIren gaurko lana.

Hala ere, lanak burutu ahala, ondorengo pauso berriak samurtu-koak ere izan litezke, gizartetik datorren eskeia indartzu duen neurrian. Halanola, lan-ordainduetarik jasoa ahal izan duguna gehituz dator urte urte, hein apal batetan bada ere: 1977/78an, aurrekontuaren % 0,48; 1979an, % 16,62; 1980an, % 18,38, eta 1981ean, % 24,89. Datu hau interesgarria da, batez ere zeragatik: Euskarari buruz gure gizarteak egiten duen belaorazio ekonomikoak aldatzen ari dela adierazten digulako. Hizkuntza-aren normalizazio sozialean egiteko gero eta biziago sentitzen da, eta horretarako, UZEIren lanak baliozko tresna bezala ikusi dira.

Baina, uste dugunez, zerbitzu publiko baten zentzua gorde beharko du beti ere UZEIk, eta autofinantzapena ez dezake har, beste gabe, helburu nagusizat. Izan ere, ikusmolde ekonomiko hutsak ekar dezakeen desbiderazio kulturaldaren arriskua ezin da ahan-tzi, gure kasuan.

## Zer eman du UZEIk euskal kulturari

Hogei hamar bat instituzioi parte hartu du UZEIri zutik eusten. Hemen denak ezin aipatu ditugunez, ez gara berezketak egiten hasiko, baina gogora ditzagun, eskierki, Euskal Erakunde Publikoak. Aurrezki Kutxa, Bankuak, Industriadari, Ganbarak eta abar.

Laguntza hauek oso ezberdinak izan dira. Batzuetan Fondo galdutuek emanik lagundu dute, asmonen zentzua, oro har, ontzat eta fidagarritzat eman dutelako; beste-tan, eginkizun edo proiektu batzuk ordaindu.

Diru-bilketak bi ekinaldi handi

izan ditu: a) Lehenen urtekoa, eta b) 1979ko udaberrikoa. Tartekamarteka, han-hemen atak joaz osatu dira ekintza haie. Eta urteoro eskeia berrituz.

Orain arte, urtez urte bildu dena honela banatzen da: 1977, 12.771.038 pta.; 1979, 18.108.893 pta.; 1980, 21.619.713 pta.; 1981, 35.273.436 pta. Kopuru haue hiru iturri izan dituzte: a) Laguntzaileen ekarpenak, b) Egindako lanen ordainketak, c) Bazkideen kuotak.

Agian, diru hori dena askotxo ez ote den pentsa dezake norbaitek, guk ezete uste dugu: pobrezia lka-ragarria bat izan dela deritzogu. Zergati, ordea? Eritzi honen gure arrazoiak hauetxe dira, bereziki: a) Ehundaka lankideren lana ordaintzeko izan da hori, b) Ordainketa horiek benetan apalak izan dira, eta dira (lan-postuen balio-neurketaz arduratzen diren teknikoek kalkulatu izan ditugunaren oso apzirik dabilza soldatak eta beste ordainketak), c) Eske sozialak eta jende ikasiak berak eskaintzen dituen lanerako ahalbideak ezin izan ditugu koordinatu. Ditugun muga ekonomikoengatik, lan-gogo asko, eta inoiz oso onak ere bai gal-tzen ikusi ditugu gure inguruan, eskatzen zitzaigun koordinazioa emateko ahalmenik ez genezelako: Horretarako, langile-talde finkoa indartu beharko litzateke. d) Hitzegietara bagatoz, lan hau hobetuz eraman nahi bada, aurrekontuek oraindik gorago joan beharko dute.

Temen eta oso garbiki, esan beharra dago zera: a) Euskararekiko eske soziai, lexiko-normalizazioan bertan ere, UZEIren lanen dezente aurretik doa (ez dugu guk beharri-zan hori asmatu bideratu baiziki), b) Baina normalizazio-eskean ez-ezik, indarretan ere, guk baino askoz gehiago eman dezake gaurreguneko euskal kultur munduak, erab- bat premiazkoak dituen koordinazioa eta erakundeak (programatuak eta libreak) ematen bazaizki- o. UZEI ez da aurrerazale buru-bero bat izan, herrenka oztza-ozta eta ezin erantzunik ibili den era- kunde bat baiziki.

Koordinazio programatuak eta li- brea aipatu ditugunez, komeni da, hitz horien azpitik dagoen kultur harremanen arazoa aipatzea.

## UZEIren harremanak

UZEIren jaiotzatik bertatik har- remanen mundua ahalik garbien eraman nahi izan dugu, eta hiru mailatakoak izan dira bereziki: Ekonomikoak, politikoak eta kul- turazkoak. Ekonomikoez zerbat esan da, eta beste biak ikusiko di- tugu orain.

Harreman politikoak modu erab- atrekian eta pluralistan era- man nahi izan dira. Horregatik, as- moa alderdi ezberdinetako jendeari azaldu zitzaion (1977), geroago os-

tera ere berritu ziren harreman haiek. Aurrera joaz, gero-ko lan- tan eta taldeetan zuzendaritzak ez dio begiratu sekula ere inoren kar- netari (hain zuzen, alderdi guztieta- koak deitzeko izan ezik). Plura- lismo politiko hau benetan eredu- garri izan dela uste dugu UZEIn. Gero, praktikan, gure taldeetan poli- tika edo ideologi presentzia nola banatu den, hori beste arazoa da: Euskal kulturaren ispilu gara hor- retan ere, eta UZEIk alferrik bor- xatu nahiko luke erreallitate hori, UZEIren lanak dituen ikuspegi tekniko eta nazionalengatik gure hau guztiontzako topaleku eroso- a izan zitekeela uste izan dugu. Neu- rri on batean xede hori bete da, eta, erosituz bera lortu ez dugun egokieretan, asmo hori, oraindik ere, ez dela helburu utopiko bat pentsatu nahi genuke.

Kultur munduarekiko harrema- nak. Lanerako programa bat, era- kundearen efikazia eta harreman libre eta erosoak, hori dena elka- rrekin uztartzea erraza ez bada ere, ahalagin horretantxe sailatu gara beti. Bestalde, gure koordinazio- batekizuna modu zauti eta flexible batez eramatan ahalagindu gara.

Kultur jendearekiko harreman honek, kasu ezberdinak ditu: bana- kako lankideak, talde lankide egi- nak, UZEIk berak sortutako talde berriak. Taldeetara biltzeko eskatu diegu beti banakako lankideei; le- hendik lanean ziharduten talde egi- nei, eskuratutako ditugun ahalbide urriak eskuzabalki eskaini nahi izan dizkiegu inolako azpitik gabe eta talde duplikatuak sortzen ibili gabe. Talde horiengandik izan dugun erantzuna ere halakoa izan da: beren lan-tresna bezala hartu duten UZEIko lantegia.

Geuk sortu edo geure inguruan jai- o diren lantalde berrietara bal- din bagatoz, berriz, hauxe da — lankidegoaren gainerako harre- man-sare osoaren ondoan — UZEIren ekarpenik onena eta ede- rrena (Hitzegigintza guztia baino areago, noski). Ikastolek, beste gisa batetan, urte batzuk lehenago eka- rri zuten kultur indarren biltze hura da, beharbada, orain beste eginkizun batzuetarako UZEIren inguruan gertatu den elkarzana- tzaren pareko.

Oro har, UZEI aski garrantziko pausoa izan dela esango genuke: maila ezberdinetako ikasiak bildu ditu, elkarren osagarri; plangintza egingarri baten efikazia eman die taldeei; kulturak behar duen iniza- tita libreaki bere esparrua utzi dio, ahal zuenetan lagunduz.

UZEIren "monopolioa" aipatu da: Erakunde-bakartasuna hor- rrela definitu nahi bada, bego. Baina, hitz horrekin, errealtatea argitu baino desitxuratu gehiago egiten delakoan gaudu. Historikoki eta sozioki talde askoren koordinazio- tzentzura joa eta bizi den era- kundeak da gurea. Eginkizunak be-

rak eskatzen du bat-izate minimo bat. Bestalde, normalizazioaren az- pitik dauden erakundeak beneto- tako arazoentzat irtenbideak ondo- ko bi galdera hauen erantzu- netatik espero ditugu guk: a) Normalizaziorako Erakunde baka- rrak (edo ezberdinek, baina koordi- natuek) nola egon behar dute? b) Bote publikoaren eskutut? b) Eus- kal Herrian eta gaurregun, gauden- tan gaudenez, funtsezko Era- kunde hori eta gizarteko normali- zazio-indarrak dinamikoan nola giltzatuko dira elkarrekin? Erant- zunez ez daude, noski, UZEIren baitan.

Kultur dinamika soziai eta Ins- tituzio jendearreko erabakiak non eta nola elkarretaratu deliberrate- a ez da UZEIren lana, baina Euskal Herriarentzat arazo nazional as- tuma, eta benetan arriskuz bete- a, gertatuko da.

## Instituzioak

Euskararen arduradun dugun erakunde akademikoaren (Euskal- tzaia) eta Erakunde Publikoen aurrean UZEIk behar zen bigar- menduz jokatu duela uste dugu.

Euskaltzaindiaren erabakiak ahalik ongien onartu ditugu, eta, inoiz (berriketan bezala), onarpen horregatik desegokiro erasoak izate- rano. Hondarribiko agiria (1981 abendu 29), zer esanik ez, era- bat ontzat ematen dugu: a) Saia- tuko gara haren gramatika-arauak egintzetara eramatan (nahiz eta behin baino gehiagotan leialtasun- tan diru eta lan-erko traste) b) Saiatuko gara hark eman ditzakeen lexikologi arauak ere onartzen, eta azkenik c) Prest gaude, horrelako- rik eskatzen bazaigu, lankidetz za- bal baterako prozedurarik egoki- nak biltzeko.

Euskal Herriko Erakunde Publi- koekikoetan ezaguna da UZEIren jarrera: a) Bildu den lankideko so- zial zabal eskaintzen dugu, b) Laguntza eske gaudu, ustez beteki- zun publikoa daramagulako, c) Be- tekizun horri, nolabait ere, nortas- un publikoa dagokiola uste dugu guk, eta arazo honetan Erakunde Publikoen esanetara gaudu.

"Euskal gizarteari egiten diogun proposamen bat bezala ikusten di- tugu UZEIko lanak (eta beronen antolamendu sozio-kultural). Propo- samentan hori, inork instituzio- nalki indartzekotan, Gobernuari eta Euskaltzaindiari dagokie egite- ko, hari bere eragin politikoare- kin, eta honi, bere erabaki akade- mikoekin; sozioki, berriz, profesio- natei eta euskaldun bakoitzari egiten zaion eskaintza da UZEIren lana" (U.H.G., 1.5.4).

Funts-funtsean, esango genuke, arazoa ez da UZEI, Euskal Herria- ren hizkuntza nazionalari normali- zazio-irtenbidea noiz eta nola emango zaion baizik

UZEIko LANGILEAK